

Euskal AEko barne I+Gko gastua % 10,4 hazi zen 2021ean

I+Gko langileak, dedikazio osoko baliokidetzan, % 6,7 hazi ziren

Ikerketa Zientifikoko eta Garapen Teknologikoko (I+G) jardueren gastua % 10,4 handitu zen Euskal AEn 2021ean, Eustatek landutako **behin-behineko emaitzen** arabera. Era berean, dedikazio osoko baliokidetzan I+Gko langile guztien kopurua % 6,7 hazi ziren.

I+Gko langileen eta gastuaren zifra horiek bertako egikaritze-sektoreek izan duten portaeran oinarritzen dira:

- Sektore nagusiak —enpresak— % 11,5 egin zuen gora barne-gastuan, eta % 8,3 I+Gko jardueretarako langileenak.
- Goi-mailako irakaskuntzan gastua % 3,2 hazi zen eta I+Gko langileena % 1,7.
- Azkenik, Administrazio Publikoaren sektorean, gastua % 18,7 handitu zen eta I+Gn lan egiten zuten langileak % 11,3.

insertatabla_20051

BPGd-ari dagokionez, Euskal AEko barneko I+Gko gastua 2020an % 2,08 izatetik 2021ean % 2,13 izatera igaro zen.

Metodologiari buruzko oharra:

Eustatek I+Gko gastuek eta langileek 2021ean izan zuten bilakaerari buruzko **Datuen Aurrerapena** egin du. Horretarako, aurreko urtean lortutako gastu osoaren % 89,6 suposatu zuten enpresak, goi-mailako irakaskuntza eta administrazio publikoa hartu dira kontuan, eta aurtengo azaroan behin betiko aurkeztuko diren emaitzen aurrerapena uztailean aurreratzeko aukera eman dute.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62